

# askóra



**erantzukizun sozialetik**  
**harago**

2021



**Jon Ramos,**  
Zuzendaria

*Une hau guztia aukera bat izango da gizarte hobe bat sortzeko platerrez plater, irribarrez irribarre.*

2020a urte zaila izan zen gizarte osoarentzat eta Askorako pertsona guztientzat. Ikastetxeak itxi ziren, egoitzak gune kritikoak izan ziren eta guztiok ustekabeko konfinamendu bat bizi izan genuen.


Gauetik goizera, gure langile gehienak ezin ziren lanera joan eta gure hornitzaileek ezin gintuzten hornitu. Oso egun zailak izan ziren, baina baita Askorari lotutako pertsonak beti lehenesteko lan egiteko egunak ere.

Soldatak babesten genituen, janaria etxeetara bidali genuen, produktuak dohaintzan eman genituen eta gure hornitzaileei erosketa erraztu genien. Baina, batez ere, gure apustuari eutsi genion: Askora ez da catering-enpresa bat bakarrik. Askorako pertsona guztien giza kalitateari esker, are indar handiagoz jarraitzen dugu gure taldea zaintzen eta zerbitzu osasungarri eta arduratsu bat eskaintzeak zer esan nahi duen etengabe birdefinitzen. Horretarako, balioa ematen diegu gure produktuei, hezkuntza-lan potentzialari, tokiko hornitzaileekiko aliantzei, material berrerabilgarrien erabilerari, eta beti gure bezeroei laguntzen.

Eta bizitzen ari garen guztia gorabehera, etorkizunari baikor begiratzen diogu. Gure Mahi-Mahi zerbitzuak balioak eta hezkuntza txertatzen ditu ikastetxeetako jantokietan, eta, horrekin, hazten jarraitzen dugu. Era berean, gure bezeroek janari osasungarri eta jasangarriekiko sentsibilitate handiagoa dutela sumatzen dugu. Gainera, pandemia honek zainketen garrantzia gogorarazi digu; funtsezkoa izan da beti hori Askorarentzat.

Baliteke 2022a urte zaila izatea. Baina ezagutzen dut Askoran dugun taldea, eta zalantzarik ez dut: aurrera aterako gara eta, gainera, une hau guztia aukera bat izango da gizarte hobe bat sortzeko platerrez plater, irribarrez irribarre.

**Eskerrik asko gure ondoan egoteagatik.**




**Iratxe Casado,**  
GJHen koordinatzailea

*Gure ustez, hobeto zaintzeko, gehiago ikasteko eta gizarte justu eta jasangarriago bat eraikitzeko bidea da janaria.*

2020ak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko erronkari aurre egin behar diogun hamarkadan kokatu gaitu. Eta pandemia dela eta, ez gara horiez ahaztu; aitzitik, horiek are gehiago indartu dira. Askorak konponbidearen parte izan nahi du; beraz, aurten, GJHak gure estrategian eta kudeaketan sartu ditugu.

Lerro hauetan ikusiko duzu, halaber, enpresa desberdin bat garela, harro gaudela halakoak izatez. Gure enpresak gizartea hobetzea nahi dugu, bai eta sektore osoa ere. Gure ustez, hobeto zaintzeko, gehiago ikasteko eta gizarte justu eta jasangarriago bat eraikitzeko bidea da janaria. Eta horretan ahalegintzen jarraituko dugu.

**Gurekin etorriko zara?**



# Zer aurkituko duzu memoria honetan?

ASKORA ZIFRATAN	6
ASKORA ASMOAK	8
GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK (GJH)	10
GURE INPAKTUA MINUTU BATEAN	12
COVID-19A: HARTUTAKO NEURRIAK	14
GURE TALDEA ZAINTZEN DUGU	16
ZERBITZU OSASUNGARRI ETA ARDURATSUA	20
HEZTEA ETA MUNDU HOBE BAT SORTZEA	24

# askora zifratan

Askora adituak da kolektibitateak artatzen. Eskola-jantokiak artatzen hasi ginen, baina, orain, askoz gehiago da Askora.

Alde batetik, hainbat erakunde-motatarako lan egiten dugu: haurtzaindegiak, enpresak, ikastetxeak, unibertsitate-egoitzak eta adinekoen egoitzak.

Eta, bestetik, janaria baino askoz gehiago eskaintzen dugu, zerbitzu integral erabilgarri bat eskaintzen dugu. Garbiketa-, arreta-, dinamizazio- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen ditugu, bai eta elikadura osasungarria eta kalitatezkoa ere.

Azken urteotako hazkundera oso azkarra izan da. 2015ean, 293 pertsona ginen eta sei milioi euro inguru fakturatzeko genituen. 2021ean, 464 pertsona gara, eta hamar milioi eurotik gorako fakturazioa lortu dugu. Pandemia dela-eta azken bi urteak oso zailak izan badira ere, hazkundera nabarmena izan da negozio-lerroetan, hedapen geografikoan, zerbitzuetan eta fakturazioan. Horrek indartu egiten du gure ustea: planetaz eta pertsonaz arduratzeak sarria ere badu.

Gure negozio-ereduak janaria bezeroaren etxean prestatzearen alde egiten du neurri handi batean, eta balio horrek bereizten gaitu merkatuan. Donostian eta Gasteizen sukalde nagusiak ditugu, baina hurbileko sukaldaritza sustatzen dugu, esperientzia ahalik eta gehien pertsonalizatu ahal izateko.

# +%47<sub>ko</sub>

**hazkundera  
2015-2021 aldian**



**464**  
pertsona



**+6.000.000€-ko**  
fakturazioa

**DATUAK:**  
2021. urtea

# 100 ZENTRO OPERATIBO BAINO GEHIAGO




**Hazkunde geografiko garrantzitsua izan dugu azken urteetan. Gipuzkoan, Araban, Bizkaian, Nafarroan, Errioxan eta Iparraldean eskaintzen ditugu zerbitzuak.**

# Askoraren asmoa

Askorak uste du enpresa batek negozio bat baino zerbaite gehiago izan behar duela. Planeta jasangarri batekin konprometituagoa dagoen gizarte hobea bat eraikitzen lagundu nahi dugu. Enpresen konpromiso sozialean sinesten dugu eta hori geure egiten dugu.

Uste sendo horrek gure zerbitzutik haratago pentsatzera eraman gaitu beti; horrela, besteak beste, zainketen garrantzia, gure hornitzaileekiko lotura eta jantokietan egin daitekeen hezkuntza-lana baloratzen ditugu.


Horregatik, gure asmoa 3 bloke handitan egituratzen da:



**1.** Gure taldea zaintzen dugu: Konfiantza dugu gure taldeko pertsonengan, eta, ondorioz, ahal dugun guztia egiten dugu haiei zaintzeko. Gure ustez, konprometituta eta pozik dauden langileak dira zerbitzu on bat eskaintzeko oinarria. Askorarekin pozik dauden pertsonen bidez bakarrik eskaini ditzakegu kalitate goreneko zerbitzuak eta bete dezakegu gure helburua. Horrek bultzatuta, gaikuntzan, genero-berdintasunean, euskararen eta lanerako asmoaren sentimenduan lan egiten dugu.

**2.** Zerbitzu osasungarri eta arduratsua bat eskaintzeko: gure janari- eta/edo arreta-zerbitzuak onena izan behar du gure bezeroentzat eta gizartearentzat. Horregatik, kalitate gorena ziurtatzeaz gain, urrats bat harago joan behar dugu: gizartearekin konprometituta dagoen produktu osasungarri bat eskaini behar dugu. Horretarako, berriz pentsatu behar dugu zer produktu aukeratu ditugun, zer ontzi, zenbat alferrik botatzen dugun, zenbat eta nola kutsatzen dugun, zer energia kontsumitzen dugun...

**3.** Hezten eta mundu hobea sortzen laguntzeko eboluzionatzen duena: Gure lana mundu hobea bat sortzeko modu berriak asmatzeko aukera gisa ulertzen dugu. Aurreko puntuak gure jardueraren oinarria dira, baina pentsamolde horrek jantokiak, dimentsio guztietan, hezkuntza-espazio gisa duen potentzial guztia erakutsi zigun. Ikasleak eta haien familiak sensibilizatzeko aukera bat da, haien inguruko gizarte-kausak bultzatzeaz gain. Bloke honek etengabe birpentsatzen laguntzen digu. Gure konpromiso sozialaren motorra da, gainera.




# GJH garapen jasangarriko helburuak

GJHak "2030ean planeta hobea izateko munduko plana" dira, eta herrialde guztiek onartu dituzte Nazio Batuen esparruan. Gainera, enpresa eta gizarte-erakunde askoren babesa dugu, eta gure bezeroen sentsibilitatea ere bai.

Guztira, 17 helburu dira, askotariko gaietakoak. Horiekin konprometitutako enpresek 17 helburu horietako batzuk lehentasunezkotzat jotzen dituzte, bai beren jardueragatik, bai konpromiso korporatiboengatik, bai denak maila berean lantzeko ezintasunagatik. Ildo horretan, eta Askorak 2030 Agendarekin duen konpromisoa adierazi ondoren, gure lanagatik gehien eragiten digutenak eta gure eragin handiena jaso dezaketenak hautatu ditugu.

Benetan konprometituta gaude plan honekin, eta palanka gisa erabili nahi dugu gure asmoa betetzeko. Horregatik, gure estrategian sartu dugu, eta materialtasun-azterketa bat egin dugu, Askorarentzat garrantzitsuenak diren GJHak identifikatu ahal izateko. Enpresaren interes-taldeek (bezeroak, langileak, administrazio publikoak) ematen dieten garrantziaren arabera eta gure egungo estrategian duten garrantziaren arabera baloratu ditugu:



## OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE



**3**  
**OSASUNA ETA**  
**ONGIZATEA**

Helburu hori funtsezkoa da Askorarentzat. Batez ere elikadurak artatzen ditugun kolektiboen osasunean duen eraginagatik (txikienetatik adinekoetara), baina baita enpresa osatzen duten pertsonen ongizateagatik ere.



**4**  
**KALITATEZKO**  
**HEZKUNTZA**

Hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa eskaintzeaz gain, hainbat arlotan eta gizabanakoaren bizitzan zehar ikasteko aukerak sustatu nahi dira. Mahi-mahi sortu zenetik bereziki, helburu hori oso garrantzitsu bilakatu da Askorarentzat. Jantoki-zerbitzu bat da, hezkuntza-gune gisa erabiltzen dena, ikastetxeko proiektuari jarraipena emateko. Gainera, familia-nukleora iristea ahalbidetzen du.



**5**  
**GENERO-**  
**BERDINTASUNA**

Emakumeen ahalduntzea lortu nahi da, generoen arteko berdintasuna lortzeaz gain. Askora konprometituta dago helburu horrekin, eta jada islatzen du bere ekintzetan horrekin bat datorrela. Lan egiten duen sektorearen sexuaren arabera lan-banaketa jabetuta, generoen integrazioa enpresako maila profesional guztietan nabari da.



**8**  
**LAN DUINA**  
**ETA HAZKUNDE**  
**EKONOMIKOA**

GJH hori garrantzitsua da, batetik, Askorako langileen enplegarritasuna eta potentziala sustatu nahi ditugulako, eta, bestetik, gure hornitzaileen lan-baldintzekin konprometituta gaudelako.



**11**  
**HIRI ETA**  
**KOMUNITATE**  
**JASANGARRIAK**

Helburu horren bidez, hiri inklusibo, seguru eta jasangarriak sortu nahi dira. Askorak helburu horretan lan egiten du, hainbat erakunde publiko zein pribaturekin egiten dituen ekintza solidarioei eta lankidetzeari dagokienez.



**12**  
**EKOIZPEN ETA**  
**KONTSUMO**  
**ARDURATSUAK**

Azken GJH horrek barne hartzen ditu erosketen erantzukizuna, alferrik galtzen denaren kontrola, birziklapena, garraioa eta ingurumenean eta bizi-kalitatean eragina duen beste edozein ekintza. Horregatik, ezinbestekoa da Askoraren zerbitzua behar bezala garatzeko.



**17**  
**ITUNA,**  
**HELBURUAK**  
**LORTZEKO**

Lehentasunezko 6 helburu horiez gain, GJH honek Askorarentzat duen garrantzia aipatu behar da:

Askora sare zabal baten parte da, eta, ezagutzak eta baliabideak trukatzearen bidez, ingurune jasangarriak eraikitzea du helburu.

*Memoria honetan ikusiko den bezala, Garapen Jasangarriko Helburuak enpresaren estrategian eta kudeaketan sartu dira, eta aplikagarri zaizkigun helburu zehatzak eta jarraipenerako beharrezkoak diren adierazleak identifikatu dira.*

# gure inpaktua minutu batean

**11** CIUDADES Y  
COMUNIDADES  
SOSTENIBLES



**% 100**  
energia berriztagarria



**%100** Estatuan  
hazitako haragi



**%100** Estatuko barazkiak  
eta fruta



**%70** tokikoa edo jasangarri-  
tasun-zigiluarekin

*% 30ek baino gehiagok jasangarri-  
tasun-irizpideak betetzen dituzte*

**12** PRODUCCIÓN  
Y CONSUMO  
RESPONSABLES



**3** SALUD  
Y BIENESTAR



**150**



Lagundutako adinekoak,  
zahartze osasungarriko  
zerbitzuekin



**1.770**

haur ingurumen-  
eta gizarte-gaietan  
sentsibilizatuta

**4** EDUCACIÓN  
DE CALIDAD



**5** IGUALDAD  
DE GÉNERO



zuzendaritzako kideen % 88  
zentroko arduradunen % 86  
oinarriko langileen % 93



**%99,1**  
fidelizazio-tasa

**8** TRABAJO DECENTE  
Y CRECIMIENTO  
ECONÓMICO



# COVID-19 hartutako neurriak

2020ko martxoko COVID-19aren munduko pandemiaren adierazpena une kritikoa izan zen Askorarentzat, hezkuntza-mailan izandako geldialdia zela eta. Ikastetxeak itxi zirenean jantokien jarduera ere gelditu egin zen, eta Askoraren zerbitzuak bertan behera gelditu ziren aldi baterako.


Munduak telelanaren eta eguneroko lanak urrutitik egiten jarraitzeko aukeraren alde egin zuen. Jantokietan lan egiten duten pertsonak, baina, ezin izan zuten aukera hori baliatu.

Gainera, zentro horiek Askora Nagusik eskainitako zerbitzuak behar dituztenak dira. Adinekoen egoitzak, bada, gizarteko kate-maila ahulena izan ziren, bertan bizi diren pertsonen ahultasuna dela eta. Ezinbestekoa zen haiek babestea. Baina adinekoen isolamenduari eta bakardadeari aurre egin behar zitzairen.

Hori horrela, Askorak lanari ekin zion: adinekoak babestea ezinbestekoa zen, haien isolamendu eta bakardadeari aurre eginez. Beti lehenetsi ditugu pertsonak pandemian, zaindu egin ditugu eta aurre egin behar izan diegun zailtasunekin kezkatu gara.

# 2020

une kritikoa Askorarentzat,  
hezkuntza mailako geldialdia dela eta



**Mahi-Mahi Etxean:** Proiektu horren helburua izan zen familiei baliabideak ematea haurrekin batera etxean ikasten jarraitu ahal izateko, jantokietan egiten zuten bezala. Egutero, etxean egiteko jarduerak proposatu ziren. Askorako pedagogotaleak antolatu zituen, eta guztiak zuten oinarri pedagogiko bat. Orain, eduki hori Askoraren webgunean eskura daiteke, helburu berberekin, oraindik ere badagoelako isolatuta egon behar duenik eta, ematen duenez, hala izaten jarraituko du.



**COVID-19aren ondorengo eskola:** Normaltasun berrian ikastetxeetara itzultzeak egiteko modu batzuk egokitzea ekarri du, batez ere Mahi-Mahi by Askoraren kasuan. Baina, misioa alde batera utzi gabe, tinko jarraitu zaio proiektuaren maximari, eta jantokiak hezkuntza-espazio gisa erabili dira. Horietan lan egiten ari gara ikastetxeetako ikasleak aldi berean formatzeko, eta, horretarako, pedagogia aplikatu da, soziabilitatea erabili da eta eskura dauden baliabideak aprobetxatu dira.



**Gutunak, bakardadearen aurrean:** Abenduan, "gure" ikastetxeetako 450 haurri eskatu genien ASKORA NAGUSI zerbitzua duten 7 zentrotako adinekoei gutunak idazteko. Nagusi taldeak irakurketa, ospakizun- eta alaitasun-dinamika bat egin zuen gutunak jaso zituztenekin. Eta, zentro batzuetan, animatu eta adingabeei bueltan idatzi zieten.



**Mahi-Mahi Azoka:** Helburu du tokiko ekoizleak babestea, Askorak egutero bere menu osasungarriak osatu ahal izateko oinarria baitira. Gure webguneko atal hau pandemiaren eta jantokien itxieraren ondorioz sortu zen, baina jarraitutasuna lortu du orrian ere. Gure ekoizleek kanal berri bat dute beren produktuak saltzeko, jantokietatik haratago, eta familien etxeetako ateak ireki dizkiete.




**Zaintzaileak zaintzen:** Ekimen hau pandemiaren testuinguruan sortu zen, Askora Nagusiko profesionalentzat. Espazio hori psikologoek zuzentzen dute, eta gure profesionalak laguntza emozionala ematen diete (COVID-19arekiko zuzeneko esposizioa izan dutenei eta oraindik ere dutenei). Tresna horrek testuinguru konplexu eta delikatu honetan lan egitearen ondorioz senti daitezkeen emozioak kudeatzeko terapia gisa balio behar du.



# gure taldea zaintzen dugu

Pertsonengan sinesten dugu, erakundeen gainera. Horregatik, gure gizarte-erantzukizunaren oinarria da gure taldeko pertsonen artean berezia ematea. Zaindu egin nahi ditugu, aintzat hartzen ditugula eta hobetzerantz bultzatzen ditugula senti dezatela, eta inplikaturatu senti daitezela bai Askora proiektuarekin, bai inguruan duten gizartearekin. Eta, jakina, gure anbizioak berdintasun-testuinguru batean aplikatu daitezela.



## PERTSONENGAN DUGU:

## SINESTEN

## BERDINTASUNA:



Pertsonen gaitasunetan sinesten dugu, eta prestakuntza-aukera handienak ematen saiatzen gara. Ez bakarrik eguneroko zereginak hobeto egiteko aukera emango dieten etengabeko prestakuntzako programen bidez, baita, banaka, trebetasun pertsonalak landuz ere, hala nola adimen emozionala edo taldeen kudeaketa. Horrez gain, garapenari buruzko urteko elkarrizketak egiten dira, eta langile berriei lehen hiru urteetarako etorkizun posible bat proposatzen zaie. Ahalegin horien guztien ondorioz, Askorako langileak pozik daude beren lanarekin, eta enpresak % 99,1eko fidelizazio-tasa lortu du.

Eskaintzen dizkiegun ordainsariei eta lan-espazioei esker, pertsonak modu atseginean lan egin dezakete. Gainera, deskontuak identifikatzen ditugu Askorako langileentzat baliagarriak izan daitezkeen zerbitzuetan. Adibidez, osasunarekin edo finantzekin lotutako prestazioak. Halaber, ebaluazio espezifikoak egiten ditugu haurdunentzat, eta arrisku-kolektiboentzako txertaketak ere bai.



Askoran berdintasuna bizi da eguneroko bizitzan: ikastetxeetan haurrekin egiten diren ekintza sinpleenetatik, beste ekintza konplexuago batzuetara. Azken horren adibide bat da emakumeak sustatzea bai plantillan, bai erantzukizun-maila guztietan.

Askorak 2013an egin zuen lehen berdintasun-plana, eta, 2020an, hirugarren eguneratzea egin zuen. Urte hauetan, lidergo-postuetan dauden emakumeen ratio oso altuak mantentzea lortu dugu (beste emaitza batzuen artean). Bai zentroko arduradunen artean (% 86), bai Zuzendaritza Taldearen artean (% 88).

Gainera, plan horrekin, neurri asko ezarri ditugu talentua sustatzeko, prestatzeko eta hautatzeko, kontziliatzeko (langileen % 3,4, 2020ko abenduaren 31n); lankidetzak egin ditugu funtsezko erakundeekin, hala nola EMAKUNDE edo ASPEGI; eta ekimen berritzaileak bultzatu ditugu, hala nola GFAREN ERANTZUNKIDE sarea. 2019an, Gipuzkoako Foru Aldundiak berak aitortu zuen gure ahalegina, "Berdintasunerako Esperientziak" 2. sariarekin.



## gure taldea zaintzen dugu

### ASKORA NAIZ:


Taldeari dagokionez, bada beste alderdi garrantzitsurik Askorarentzat: erakundekoa izatearen sentimendua lantzea. Horregatik, Askoraren parte sentiarazten gaituzten motibazioak zaindu nahi ditugu. Detaile batzuk ematen dizkiegu Askorako langileei. Hemen aurkeztutako Garapen Jasangarriko Helburuekin lotzen dira horiek, gainera. Adibidez, gure tokiko ekoizleetako baten gazta bat eta oihalezko poltsak.

Gainera, kausa sozialekiko sentsibilitatea sustatu nahi dugu gure langileen artean. Beraz, "Askora solidarioa"ren bidez, plantillako langileek egiten dituzten ekintza solidarioak babesten ditugu. Esate baterako, Dravet-en sindromeari buruz kontzientziatzeko lasterketa batean parte hartu genuen; Zaporeak elkartearen eskutik, Siriako errefuxiatuentzako elikagaiak bildu genituen; eta tapoiak bildu genituen, gaixotasun larriak dituzten haurren familiei laguntzeko dirua biltzen laguntzeko "Juneren Hegoak" elkarteari.



## konpromisoa kudeaketan:

Gure taldea zainduz, GJHen ildoari jarraitzen diogu:



**3**  
OSASUNA ETA  
ONGIZATEA

#### 3.D XEDEA:

Gaitasun handiagoa izatea osasunerako arriskuak murriztearen eta kudeatzearen arloan.

#### ADIERAZLEA:

Langile guztiek COVID-19aren aurka babesteko ekipamendua dute.



**5**  
GENERO-  
BERDINTASUNA

#### 5.5 XEDEA:

Emakumeen parte-hartze erabatekoa eta eraginkorra bermatzea eta lidergo-aukerak areagotzea.

#### ADIERAZLEA:

Zuzendaritza Taldeko kideen % 88 emakumeak dira, eta zentroko arduradunen % 86.



**8**  
LAN DUINA  
ETA HAZKUNDE  
EKONOMIKOA

#### 8.5 XEDEA:

Enplegu erabatekoa eta produktiboa eta langile guztientzako lan duina lortzea.

#### ADIERAZLEA:

% 99,1eko fidelizazio-tasa.

# zerbitzu osasungarri eta arduratsua



Egiten duguna gara. Gure zerbitzua da hobetzeko modurik zuzenena eta jarraituena; hartara, mundu jasangarriago eta osasungarriago bat izango dugu. Hori guztia beharrezkoa eta ezinbestekoa da, bai munduko biztanle guztientzat, bai ingurumenarako.



## MENU OSASUNGARRIAK:



Askoraren nutrizionista taldeak dieta osasuntsuak eta orekatuak diseinatu ditu, alergiak eta intolerantziak kontuan hartuta. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren menu osasungarriari buruzko gomendioei jarraitzen diegu, eta menu horien garapena sustatzen duen lantaldeko kide gara.

Gainera, haratago goaz, eta gure eguneroko ekintza zehatzetara eramaten dugu hori. Adibidez, palma-olioa kendu dugu enpanadilletatik, haragi-boletatik, kroketetatik eta beste produktu batzuetatik, GEORik gabeko fruta eta barazkiak bakarrik erosten ditugu eta asteko haragi-kontsumoa murriztu dugu. Horren guztiaren aitortzen gisa, elikaduran ohitura osasungarriak sustatzen dituela ziurtatzen duen Gosasun zigilua jaso zuen Askorak.

## EROSKETA ARDURATSUA:

2018az geroztik, erosketa arduratsuko plan anbiziotsu bat dugu. Plan horretan, gure hornidura-kate osoa ebaluatzen dugu, eta produkturik garrantzitsuenak lehenesten ditugu, tokikoa eta jasangarria dena eta lan-baldintzak kontuan hartuta.

Plan horri esker, mugarri esanguratsuenak lortu ditugu:

- **Haragi guztia Estatutik dator.** Horren % 45 tokiko haragia da, gure instalaziotik 160 kilometrorra baino gutxira hazitakoa.
- **Barazki fresko guztiak Estatutik datoz,** eta horien % 75 tokikoak dira.
- **Fruta fresko guztia Estatutik dator.**
- Edozein arrain erosten dugunean, espeziearen jasangarritasuna eta habitata eta arrantzatze metodoa baloratzen ditugu, eta emaitza hauek lortu ditugu:
  - Arrainen % 70ek Kantauri Itsasoan dute jatorria edo jasangarritasun-zigilua dute.
  - Ingurumen- eta gizarte-inkaktu txikia izateari eman diogu beti lehentasuna, prezioaren gaineratik.
- Eskola-jantokietan zerbitzatzen diren arrautzak **oilo zoriontsuenak** dira (0 edo 1 kodeak).



Tokiko erosketari lehentasuna emateaz eta gure inguruko ekonomia sustatzeaz gain, hornitzaileei laguntzak eskaintzen dizkiegu, hala nola ordaintzeko epe murriztuak, haiekin harreman estua eta konfiantzazkoa sortu nahi dugu eta.

Ekintza horiei guztiei esker, urtean 77 tona CO<sub>2</sub> isurtzea saihesten da, deforestazioa murrizten da, oreka handiagoa lortzen da ozeanoetan (jasangarritasun-irizpideen arabera, 1.000 arrain urtero) eta 156 oilo zoriontsu izatea (GEORik eta antibiotikorik gabe) lortzen da.



**77 tona CO<sub>2</sub>/urte**  
EZ DIRA ISURI ATMOSFERARA

## zerbitzu osasungarri eta arduratsua

### PROZESU JASANGARRIAK:

Prozesuaren jasangarritasuna ez da elikadura-kontu bat bakarrik. Horregatik, gure prozesuak birpentsatu ditugu, gure ingurumen- inpaktua minimizatzeko ekintzak identifikatzeko. Ahalegin hori, gainera, saritu egin digute; izan ere, ISO 14.001 eskuratu dugu Donostiako eta Gasteizko zentroetan ingurumena kudeatzeko dugun sistemari dagokionez.

Prozesu jasangarriek, konpromisoaren bidez, maila iraunkor bat osatu dute Askoraren funtzionamenduan. 2019an, jatorri berriztagarriko elektrizitatea kontsumitzearen aldeko apustua egin genuen, eta, urte horretan bertan, halako elektrizitatea bakarrik kontsumitu genuen. Gainera, ontzi jasangarriak eta berrerabilgarriak erabiltzen ditugu, eta hornitzaileekin lan egiten saiatzen gara, bilgarriak murrizteko. Elikagai gutxiago alferrik galtzeari dagokionez, jardura berezizat hartu dugu, eta, garapen-prozesuan, Elikagaiak alferrik galtzearen kontrako Euskadiko plataformarekin bat egin dugu.


Banaketari dagokionez, joan-etorriak efizienteagoak izatea nahi dugu, eta, 2020an, ibilgailu hibridoak sartzen hasi ginen.

Gure bulegoetako jasangarritasunaren zirkulua ixteko, bulegoko material biodegradagarria erabiltzen dugu eta papera, plastikoa eta tonerrak birziklatzen ditugu. Gainera, materia organikoa ere bereizten dugu, hura birziklatzeko aukera dagoen udalerrietan.



## konpromisoa kudeaketan:

GJH hauetan laguntzen dugu, zerbitzu osasungarri eta arduratsu bat lortzeko:



### 3.D XEDEA:

Gaitasun handiagoa izatea osasunerako arriskuak murriztearen eta kudeatzearen arloan.

### ADIERAZLEA:

Menu guztiek osasun- eta ongizate-irizpide publikoak betetzen dituzte.



### 8.3 XEDEA:

Hornidura-katearen bitartez, hauek sustatzea: lanpostu duinak sortzea, sormena eta berrikuntza eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen hazkundera.

### ADIERAZLEAK:

Produktu guztiak Estatuan hazten edo landatzen dira; haragiaren % 45 tokikoa da eta barazkien % 75 tokikoak dira.



### 12.2 XEDEA:

2030erako, baliabide naturalak modu jasangarrian kudeatzea eta modu efizientean erabiltzea.

### ADIERAZLEAK:

Elektrizitate guztia berriztagarria da, ISO 14.001 lortu dugu.



### 14.C XEDEA:


Ozeanoen eta haien baliabideen kontserbazioa eta erabilera jasangarria hobetzea.

### ADIERAZLEA:

Arrainen % 70ek Kantauri Itsasoan dute jatorria edo jasangarritasun-zigilu bat dute.

# heztea eta mundu hobe bat sortzea

Azken bloke hau oso garrantzitsua da Askorarentzat. Ez dugu komunitatea zaintzarekin edo zerbitzu osasungarri eta arduratsu bat izatearekin konformatu nahi. Gure sektoreak gizartean duen rola birpentsatu nahi dugu, bai hezkuntzaren ikuspegitik, bai komunitatearekiko inplikazioaren ikuspegitik. Horregatik, eskaintzen duen zerbitzua hezteko eta mundu hobe bat sortzeko aukera gisa ulertzen du Askorak.



## KOMUNITATEAREKIKO INPLIKAZIOA:

Komunitate baten parte gara, eta zorretan gaude harekin. Gure komunitatea gure bezeroek, erabiltzaileek, haien familiek eta inguru hurbilean etorkizun jasagarriago eta inklusiboago baten alde borrokatzen diren gizarte-erakundeek osatzen dute.

Lotura horrek bultzatzen gaitu dimentsio hauetan inplikatzera eta laguntzera:

- 1. Gure bezeroentzako garrantzitsuak diren kausetan inplikatzera.** Lehengaiak jartzen ditugu, bai eta boluntarioak ere, inplikaturako gizarte-erakundeentzat ahalik eta funts gehien bildu ahal izateko. Esate baterako, krispetak egiteko makina korporatiboa lagatzen dugu, helburu sozialeko ekitaldietarako.
- 2. Axola zaizkigun kausetan sentibilizatzea.** Bereziki ikastetxeetan jarduten dugu, eta ikasleek ingurune premiekin konektatzeko ekintzak egiten ditugu: opari-haziak, Genero Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguneko ahozapi moreak eta Homofobiaren Kontrako Eguneko "ostadarra" eta berdez margotzea planetari buruz hausnartzeko. Jarduera espezifikogoei dagokienez, 1.770

haurrekin batera, hainbat ekimen egin ditugu; tartean, hauek: ura bereiztea ureztatzeko, hondakin organikoak bereiztea zentroko baratzerako eta birziklapenari eta elikadura-produktuei buruzko tailerrak. Jarduera hauen bidez, gogoeta egitera eta ekitera animatu nahi ditugu ikasleak eta familiak. Familiekin, bada, sortutako inpaktua areagotu dugu.

- 3. Sarean lan egitea.** Lankidetzako aktibistak gara sarean jarduteko ahalmenean sinesten dugulako. Hala, gizarte-erakundeekin lan egiteaz gain, lankidetzan aritzen gara sektorea eta enpresak (Elikaduraren Klusterra, ASPEGI eta APD), gazteen enplegarritasuna (UPV/EHU eta LHko zentroak), berdintasuna (Emakunde eta Gipuzkoako Foru Aldundia) eta elikadura osasungarria (Eusko Jaurlaritzaren eta Innobasque) bultzatzeko.

Gainera, euskararen hizkuntza-normalizazioarekin konprometituta gaude eta hori ziurtatzen duen Bikain zigorria dugu. Euskarak eremu sozioekonomikoan duen presentziari dagokionez, hizkuntza-kudeaketaren kalitatea egiaztatzen duen aitortpena da.

## heztea eta mundu hobe bat sortzea

### MAHI-MAHI: ASMOA DUEN JANTOKI-ZERBITZU BAT



Gure ustez, jantoki bat ez da ikasleak elikatzeko gune bat bakarrik; baldintza egokiak sortuz gero, ikasi, deskonektatu, partekatu eta ospatzeko toki bat ere bada. Horregatik, duela 4 urte, Mahi-Mahi izeneko zerbitzu berri hau diseinatu genuen, jantokia ikastetxe bakoitzaren helburu pedagogikoekin lerrokatzen duena. Gainera, modu dibertigarrian lantzen ditugu berdintasuna eta erantzukizuna.

Mahi-Mahin egindako lanagatik hainbat sari jaso ditugu. Proiektua Service Design Awarden mundu mailako finalista izan zen 2017an, eta, 2019an, Gipuzkoako enpresentzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Esperientzien 2. saria lortu zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen du sari hori.

Mahi-Mahi zerbitzuan, beste zentro batzuetan egiten den sentibilizazio handiagoa eginez, birziklapena, uraren erabilera adimenduna, kultura aniztasuna edo elkartasuna lantzeko ekintza berritzaileak eta dibertigarriak egiten dira. Adibidez, abenduan, Itsas Salbamenduaren bisita jaso genuen gure zentroetan: Mediterraneo zeharkatzera behartuta dauden errefuxiatuen errealitatera hurbildu gintuzten. Eta Landarbaso abesbatzarekin ahotsa, gorputz adierazpena eta perkusioa landu genituen.


Halaber, pandemia zela eta, bi jarduera espezifiko abiarazi genituen –egiten jarraitzen dugu–. Alde batetik, Mahi-Mahi Etxean, gure webguneko espazio bat, non familiei materialak ematen dizkiegun haurrek beren etxeetan ikasten jarraitu ahal izan dezaten, jantokietan egiten zuten bezala. Eta, bestetik,

Mahi-Mahi Azoka, gure ekoizleak ezagutzera emateko eta beren produktuak gure plataformaren bidez merkaturatu ahal izateko, eskola-jantokiak geldirik zeuden une batean.


Mahi-Mahi proiektuak haurrentzako hainbat bizipen eta esperientzia batzen ditu. Ikasleak kontzientziatzeko eta munduan gertatzen ari dena modu presentzian biziartzeko uneak eta espazioak sortzen ditu. Hori guztia, pertsonen eta planetaren beraren zaintza oinarritzat hartuta.

Mahi-Mahi jantokien barruan elikagai berriak esperimentatu eta ezagutzen ditugu, elikadurarekin erabateko erlazioa izaten saiatzen gara eta ikasleen protagonismoa sustatzen dugu jateko unean. Mahi-Mahi jantokietatik kanpo, patioetan jarduerak eta ekintzak egiten ditugu, elikagai integralen eta zurien mundua ezagutzen dugu, ekoizleak ezagutzen ditugu eta gure jantokian gozaten ditugun produktuek egiten duten bidea ezagutzen dugu, ekonomia zirkularrari eta plastikoiari buruz ikasten dugu – Ekomodo proiektuarekin eta beste batzuekin– eta gure patioetako biodibertsitatea aztertzen dugu, besteak beste.

Mahi-Mahi bidaia bat da, eta asko dago esploratzeko eta ikasteko, hurbilekoa den, maitasunez beteta dagoen eta etorkizun jasangarriago eta errespetuzkoago batera bideratuta dagoen filosofia batetik.



*Mahi-Mahi proiektuak haurrentzako hainbat bizipen eta esperientzia batzen ditu. Ikasleak kontzientziatzeko eta munduan gertatzen ari dena modu presentzian biziartzeko uneak eta espazioak sortzen ditu.*



# heztea eta mundu hobe bat sortzea

## ASKORA NAGUSI:



Askora Nagusi zerbitzua 2017an sortu zen, mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintza onena eta ahalik eta aginte handiena osatzeko. Zahartze aktiboa eta arreta soziosanitario profesionala sustatzen ditu.

Gaur egun, 150 pertsonari ematen diegu zerbitzua 6 egoitza-komunitatetan.

Pandemian, gure profesionalen osasun emozionala indartzeko lan egin dugu, "Zaintzaileak zaintzen" proiektuaren bidez. Psikologoek gure profesionali laguntza emozionala ematen diete (COVID-19arekiko zuzeneko esposizioa izan dutenei eta oraindik ere dutenei).

## askora nagusi

atención y envejecimiento saludable • arreta eta zahartze osasungarria



## konpromisoa kudeaketan:

Hezten, mundu hobe bat sortzeko lan egiten dugu. Guri dagozkigun GJHei laguntzen dieten ekintzak:



**4**  
KALITATEZKO  
HEZKUNTZA

### 4.7 XEDEA:

Ikasle guztiak garapen jasangarria sustatzeko behar diren ezagutzak eskuratzen dituztela ziurtatzea.

### ADIERAZLEAK:

1.770 haurrek parte hartzen dute sensibilizazio-ekintza espezifikoetan. 6 ikastetxek dute Mahi-Mahi zerbitzua.



**11**  
HIRI ETA  
KOMUNITATE  
JASANGARRIAK

### 11.4 XEDEA:

Planetako ondare kulturala eta naturala babesteko ahaleginak areagotzea.

### ADIERAZLEA:

9 gizarte-ekimen babestu ditugu 2019-2021 aldian, dohaintzetan.



**17**  
HELBURUAK  
LORTZEKO ITUNAK

### 17.17 XEDEA:

Arlo publikoan eta publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak eratzea sustatzea.

### ADIERAZLEA:

Elkarlanean aritu gara GJHak bultzatzeko estrategian sartutako 10 erakunderekin baino gehiagorekin.

